

Irudi bidez idazten

Egunkaria, 1991-10-01: 2.

Asun Balzola aspaldidanik ezagutzen dut; 1973an ikusi nuen lehen aldiz Donibane Lohizunen; Ramontxo Sotaren eskutik etorri zen Urdazuri auzotegira. une larriak ziren haiek. Sokoan Larzabal apaizak hiletetako prestatzen zituen hitzaldi labur eta zail haiek zotinka irteten zitzaizkion denbora zen; orduko izpiritua asko ahuldu zaigu, zoritxarrez; aisegi ahazten zaizkigu gauza batzuk!, eta ez denak alafede! Beste behin Belloc-en "*Las brujas de Sorjin*" elaberriari azken jorraldia egitera joan nintzen alditxo hartan aurkitu ginen berton. Asun neke handiz mugitzen zen; istripu larri baten ondoren geratu zitzaion elbarritasunarekin borroka bizian, garai hartako euskal mundu zailean (noiz izan da erraza) bere ekarpena nonbait kokatu nahian. Geroztik ikusi ez badut ere, zoragarriak diren bere irudiekin topo egin dute maiz nire begiek. "Ereinek" hain duinki argitaratzen dituen haur euskaldunen munduko liburuetan. Asun beraren begi bizi eta argien islada dira. Urte asko da ikusi ez dudala, eta Asun aldatuko zen itxuraz harrez gero, besteok bezala, baina harritzekoa da zein gazte, zein haur, geratu den bere irudimen ederreko mundua! Irakurtzen ditut kritikoek egiten dizkioten aipamenak, atzerrian irabazten dituen sarien berriek. Egun hauetan EGUNKARIAk egin dio azken orrialdeko aipamena. Aitortzen du ez duela euskaraz hitzegitea lortu, ahalegin asko egin bada ere; ahalegin horien berri banuen, eta esan nahi diot hemen bere ilustrazioko mundu zabal eta sakon guztia euskaraz mintzatzen dela haur euskaldunentzat.

Lortu duela euskal munduaganako bere ekarpena ondo baino hobeto kokatzea.